

2022 Uda

# BIBLIO OPORRAK

filmak / liburuak / musika

Gida hau osatu duten liburutegiak:

Aramaioko Udal Liburutegia
Aretxabaletako Udal Liburutegia
Arrasateko Udal Biblioteka
Bergarako Udal Liburutegia
Eskoriatzako Udal Biblioteka
Legazpiko Udal Liburutegia
Oñatiko Udal Liburutegia

# LIBURUAK

## 0+ URTE



**XIRIMIRI**
*Fernando Pérez Hernando* — PAMIELA

*Xirimiri* istorio biribil, sinpatiko eta sinplea da. Proposamen erakargarria, musikaltasunez beteriko istorioa bokalekin ohitzeko, eta gainera, eskuzabaltasuna eta familiaren maitasuna bezalako balioak transmititzen dituena. Liburu ezin hobea ozen irakurtzeko eta umeekin irakurketa (eta barreak) partekatzeko.



**BI AHIZPA=TWO SISTERS**
*Leticia Ruifernández* — A FIN DE CUENTOS

Bi ahizpa elkarri begira, jolasean eta barrez. Begirada gorputzera zuzentzen da: besoak, belarriak, sudurra, bihotza. Poesia delikatu batean haurtzaroko erritmo geldoa, denboraren iragate gozoa transmititzen digun neurri txikiko liburu ilustratua. Euskarazko eta ingelesezko edizio elebiduna.



**BASO ILUN ETA SAKONEAN**
*Delphine Bournay* — TXALAPARTA

Basoan, ilundu baino lehentxoago, otso familia ugariaren orroak entzuten dira. Ez izutu! Gu bezalakoak dira, lo hartu aurretik istorio bat behar dute, musu bat, abesti bat... Otsoek tradizio literarioan duten lotura negatiboa deseraikitzen duen albuma.



**RIZOS DE ORO Y LOS TRES OSOS**
*Olivier Douzou* — KALANDRAKA

Versión moderna del clásico de siempre que sorprenderá a las y los jóvenes lectores. Álbum innovador cargado de humor y creatividad que nos invita a jugar con letras, números y formas geométricas.



**PETIT, EL MONSTRUO**
*Isol* — TAKATUKA

Llega un momento en este divertido cuento en el que Petit se pregunta si es un niño bueno o malo. Lo cierto es que Petit no sabe qué contestar. ¿Será alguna clase de monstruo inclasificable?



**NIÑO NIÑA**
*Joana Estrela* — TAKATUKA

Con sencillas y coloridas ilustraciones, la autora portuguesa hace un bello alegato a la diversidad de género y la libertad de elegir tu propia identidad, fomentando la empatía y el respeto. Desde su publicación en Portugal, este álbum se encuentra incluido en su Plan Nacional de Lectura.

## 6+ URTE



**BARRUKO HOTSAK**
*Leire Bilbao* — PAMIELA

Egun arrunt batean egiten ditugun hots eta soinuak batu ditu Leire Bilbaok liburu jolasti honetan. Eta Maite Mutuberriaren elkarlanarekin, soinuak poema bilakatu ditu.



**GIZA ANIMALIAK GARA**
*Rosie Haine* — ALBERDANIA

Antzina, urtaroek egutegia gidatzen zuten, pertsona bakoitza artisaua zen, janaria bilketa edo ehizaren bitartez lortzen zen, animaliak errespetatzen ziren, batzuk adiskide leialak, beste batzuk elikatzeko erabiliak... Giza eboluzioari buruzko gogoeta poetiko baten aurrean aurkitzen gara, non egileak historiaurretik XXI. mendera arteko gizakiak izan duen papera kontatzen digun.



**AITONA LUKASEN TXABOLA**
*Pello Añorga* — ELKAR

Baserria eraitsi zutenez geroztik, aitona txabolan bizi da, eta ez da beste inora joaten. Krispin biloba gonbidatu du gaurkoan. Harek pozik hartu du gonbidapena, izan ere, aitonak ez du inoiz presarik izaten, eta berarekin egoteko behar duen denbora hartzen du. Añorgak keinu bat egin die bizimodu xumeari eta aitona-amonen jakinduriari.



**LA ROCA DEL CIELO**
*Jon Klassen* — NUBEOCHO

Hay una roca enorme flotando en el cielo y está a punto de caer sobre varios animales. Mientras tanto, la vida se desarrolla ajena a lo que tienen encima. Nuevo libro del galardonado Klassen cargado de humor y suspense.



**MILO IMAGINA EL MUNDO**
*Matt de la Peña* — LIBROS DEL ZORRO ROJO

En este relato, acompañaremos a Milo en el metro mientras va dibujando e imaginando lo que ocurre a su alrededor. Un libro infantil poco común y entrañable que invita a la reflexión y que permite además diferentes lecturas.



**CARAMELOS MÁGICOS**
*Heena Baek* — KÓKINOS

Esta es la historia de un niño muy tímido que siempre jugaba solo. Un día encontró unos caramelos muy especiales, al meterlos en la boca podía escuchar la voz interior de objetos y personas, incluso pudo escuchar la suya propia... y la magia surgió.

## 9+ URTE



**GERRA**
*José Jorge Letria* — A FIN DE CUENTOS

Gerrak eguna urratzen du, gaixotasun xuxurlatu eta bizkor batek bezala; ez du entzuten, ez ikusten, ez sentitzen. Gerra gorrotoak, zapaldu nahiak eta ezinikusiak elikatzen dute. Labur baina indartsu, gerraren gaitz guztiak agerian jartzen dituen albuma.



**ESNA IRAUTEKO IPUINAK**
*Xabier Olaso* — DENONARTEAN

57 ipuin laburrez eta beste hainbeste esaldi motzez osatutako liburu hau egiteko, Olasok umorea, tradizioa gaur egunera ekarrita eta irakurleekin jolastea erabili ditu. Irakurleak ahozkotasunari lotutako idazkera nabarituko du, testuari freskotasuna eta arintasuna ematen diona.



**BOTOITXO**
*Anjel Lertxundi* — EREIN

Bere herriko mertzerian sartzen den bakoitzean liluratuta sentitzen den mutiko baten istorioa da hau. Bertan ohartuko da bizitzan koloretako zinta ederrak daudela, baina baita galera eta tristura ere. Lertxundi maisu da emozio indar handiko literatura eskaintzen eta Olariagaren marrazkiek ere primeran islatzen dute indar hori.



**EL ÚLTIMO OSO**
*Hannah Gold* — DUOMO

El amor de la escritora por los animales y su preocupación por el cambio climático fue lo que la llevó a escribir esta historia de aventuras y amistad entre una chica de 10 años y un oso polar. April y su padre vivirán seis meses en el Ártico, en la Isla del Oso, lugar donde se desarrolla esta inolvidable y mágica novela.



**OCÉANOS... Y CÓMO SALVARLOS**
*Amandine Thomas* — ERRATA NATURAE

Embárcate en un gran viaje alrededor del mundo para explorar los ecosistemas marinos y descubrir cómo actuar para protegerlos. Ilustraciones coloridas a doble página repletas de animales que brillan o cambian de color, bosques submarinos, profundidades misteriosas y mucho más.



**LOS MUÉRTIMER**
*Léa Mazé* — ASTIBERRI

Esta trilogía en formato cómic nos narra la aventura de la familia dueña de la funeraria del pueblo. En el cementerio descubrirán un misterio que les ocasionará numerosos problemas. ¿Lograrán salir de esta y esclarecer el misterio?

## GAZTEAK



**ZERRIA**
*Patxi Zubizarreta* — EREIN

Bereket glaziologoa Suitzako Alpeetan lanean ari dela, momifikatuak dauden hiru gorpuzki azaltzen dira glaziar batean. Aurkikuntzak hunkituta, ikertzaileak ahal duen guztia egingo du pertsona horiek nortzuk izan ziren jakiteko. Nobela ezin hobeto eraikia irakurlearengan intriga sortzeko. Ez zaitu epel utziko!



**TRUMPET**
*Mónica Rodríguez* — IBAIZABAL

Mateo gazteari barruan zerbait mugitzen zaio Maliken tronpeta entzuten duenean kalean. Musikaren bitartez adiskidetasun harreman bat sortuko da bien artean eta, bitartean, New Orleanseko jazz jotzaile ospetsuaren iragana azaleratzen joango da kea eta musika darion eleberri honetan.



**JOÃO**
*Paloma González Rubio* — IBAIZABAL

Miguelek kostaldeko herri batean bizimodu arrunta darama bere amarekin eta arreba Inesekin. João zibilizaziotik kanpo bizi da Meltemi izeneko belaontzian eta oso gutxitan lehorreratzen da. Nerabe hauen bizitzak ezustean gurutzatuko dira, eta horrek betiko aldatuko du euren etorkizuna.



### OPERACIÓN BIKINI
*Júlia Barceló* ______ FLAMBOYANT

A Sol le invitan a una fiesta de cumpleaños en la playa y entra en pánico. ¡Tiene que cambiar su cuerpo en tiempo récord! ¿Pero qué pasa si descubre que hay una manera más liberadora de vivir? El libro trata con frescura y humor conceptos como la presión estética y la gordofobia.



### EL PÁJARO QUE LLEVO DENTRO VUELA ADONDE QUIERE
*Sara Lundberg* ______ GALIMATAZO

Suecia, principios del siglo XX. La joven Berga sueña con ser artista, sin embargo, su futuro parece estar ya escrito dadas las convenciones de la sociedad. Novela ilustrada con belleza, inspirada en la infancia de Berga Hansson.



### UN EWOK EN EL JARDÍN
*Pedro Ramos* ______ EDEBÉ

La novela aborda de forma clara y concisa unos temas que son tabú hoy en día, como son la depresión y el suicidio. El protagonista, David, nos conducirá por medio de sus desgarradores sentimientos a lo largo de unas horas de su vida. Tan dura como necesaria.

## HELDUAK



### NO-COSAS
*Byung-Chul Han* ______ TAURUS

En gran medida vivimos nutriéndonos de datos, información, imágenes virtuales, amigos virtuales, en definitiva, el "metaverso". El filósofo y profesor Byung-Chul Han expone una lúcida reflexión sobre las consecuencias que ello está provocando en los seres humanos.



### BETTY
*Tiffany McDaniel* ______ HOJA DE LATA

Una colosal novela de aprendizaje, espiritual y feminista, ambientada en el Ohio rural de los años sesenta e inspirada en la apasionante historia familiar de la autora.



### BUENO, AQUÍ ESTAMOS
*Graham Swift* ______ ANAGRAMA

Graham Swift viaja al pasado para construir una fascinante novela sobre la enigmática desaparición de un mago tal y como la recuerda su expareja. Novela de gran sensibilidad que nos envuelve en un mundo repleto de ilusiones y magia aun cuando el entorno sea convulso y desolador.



### 31 IPUIN
*Anton Txekhov* ______ ELKAR

Errusieratik zuzenean itzuli ditu Iker Sanchok ipuin hauek. Molde askotakoak aurkituko ditugu bilduma honetan, motzak, irakurterrazak eta mamitsuak denak ere. Aukera paregabea ipuingintza modernoaren aita eta maisutzat aitortzen den egilea ezagutzeko.



### ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
*Eider Rodriguez* ______ SUSA

Eider Rodriguezek maitasun gutun bat zuzentzen dio bere aitari, alkoholak markatutako bizitza baten ondoren hil berri denari, ez-fikziozko eleberria eratuz. Benetakoa delako, zintzo, grinatsu, zorrotz eta mingarri agertzen da gutuna, perfekzio eta idealizazioetatik oso urrun dagoena. Gordina bezain hunkigarria!



### LO QUE PASA DE NOCHE
*Peter Cameron* ______ LIBROS DEL ASTEROIDE

Novela que narra los sueños rotos de un matrimonio. Una obra que nos habla de la complejidad y fragilidad del amor, de los deseos ocultos y de los lazos que creamos con los demás. Sin duda, un trabajo narrativo excelente.



### BEIRAZKO KANPAIA
*Sylvia Plath* ______ TXALAPARTA

Idazleak argitaratu zuen eleberri bakarra ikuspegi feministatik idatzita dago, autobiografikoa eta irudiz beterikoa da. Kontakizuna doa dirdiratik iluntasunera eta bikain adierazten du zeinen bakarrik senti daitekeen pertsona bat hondoa jotzen duenean.



### JACOB, GAUEKO LANGILEA
*Matz; Chemineau* ______ TXALAPARTA

Alexandre Jacoben bizitza bide-erakusle izan zen Lucio Urtubiarentzat, anarkista nafarrak haren biografia oheburuko zuen. Gizon kementsu baten historia epikoa, bizitza interesgarria eta irudi ederrekin lagunduta.



### LIZTOR MUTANTEAK
*Santi Leone* ______ SUSA

Hamar ipuin bihurri biltzen dituen liburu honetan lantzen dira literatura eta harreman afektiboak, bizitza eta fikzioaren arteko muga. Gehienek bukaera irekia dute irakurleok hutsuneak bete ditzagun.



### HIERBA
*Keum Suk Gendry-Kim* ______ RESERVOIR BOOKS

Las esclavas sexuales que el ejército japonés utilizó durante la ocupación japonesa en el Pacífico es uno de los capítulos más oscuros del siglo XX. A través de un dibujo poderoso en blanco y negro, la autora presenta el testimonio real de una superviviente que en medio del drama se expresa con amabilidad y hasta con humor.



### ADULTOS
*Marie Aubert* ______ NÓRDICA

Ida es una arquitecta sin hijos que va a pasar unos días en una idílica cabaña familiar junto al mar, pero la relación con su hermana se va complicando poco a poco. Los sentimientos no curados, la competitividad y la inmadurez son temas que se tratan en este libro, que analiza los conflictos familiares y las dudas de una mujer de cuarenta años sobre la maternidad.



### LANDA ALDEKO NESKAK
*Edna O`Brien* ______ EREIN; IGELA

1960an idatzi zuen bere lehendabiziko nobela hau idazle irlandarrak. Landa aldeko bi nesken ibilerak kontatzen dizkigu. Garaiko gizarte katoliko zapaltzaileitik ihes egin nahi duten neskak dira, inposatutako maitasun eta feminitate eredua apurtzeko prest daudenak.



### LEONARD COHEN: ON THE WIRE
*Philippe Girard* ______ NORMA

Leonard Cohen, cantautor y poeta muy conocido desde los sesenta, nos dejó en 2016 a los 82 años. Esta es su vida que, aunque no conozcamos o apreciemos su música, resulta muy intensa y excitante. Un cómic para leer de un tirón.



### MAMUT
*Eva Baltasar* ______ LITERATURA RANDOM HOUSE

La protagonista es una chica de ciudad que quiere ser madre. Un día decide instalarse en una casa aislada en el campo, donde solo hay un pastor, soledad y bestias. Una historia cruda que va in crescendo hasta llegar a un final sorprendente.



### CARCOMA
*Layla Martínez* ______ AMOR DE MADRE

Una casa de sombras y mujeres, una novela tensa e inquietante que se ocupa de los secretos que todas las familias albergan en las paredes que habitan.



### AZKEN ETXEA
*Arantxa Urretabizkaia* ______ PAMIELA

Bizitzaren azken urteak pasatzeko etxe baten bila dabil liburu honetako protagonista. Hendaiako etxe bat gustatzen zaio eta bere helburua lortzeko, behar duen guztia egingo du. Idazleak irakurlearekin ezkutaketa jolas bat mantentzen du pertsonaien bitartez, thriller klasiko baten kutsua emanez.

## MUSIKA



### SOLEDADES
*María Sedano* ______ JAZZ

Burgosko abeslari gazteak bere lehen diskoa aurkeztu du hamar abesti bikainekin. Jazzetik abiatuta, Gaztelako eta Latinoamerikako musika tradizionalak uztartzen ditu oso modu pertsonalean.

La joven cantante burgalesa presenta su primer álbum con diez impecables canciones, que parten del jazz y se fusionan de forma muy personal con la música tradicional de su tierra y de Latinoamérica.



### KONDAIRA EDER HURA
*Verde Prato* ______ ESPERIMENTALA

Ana Arsuagaren proiektu berritzaile honek folk tradizionalaren ezohiko interpretazio bat egiten du, mimo handiz, bere ahotsaren eta erritmo kaxen laguntzarekin.

El vanguardista proyecto de Ana Arsuaga reinventa con mucho mimo el folk tradicional a través de una voz evocadora y cajas de ritmos.



### A LIGHT FOR ATTRACTING ATTENTION
*The Smile* ______ ROCK

90. hamarkadako musika alternatiboaren adierazgarri izan zen "Radiohead" taldearen oihartzunak aurkitzen dira album honetan. Rocka itzuli da, gitarrak itzuli dira, eta elektronika ere nonahi ageri da.

En este álbum se encuentran los ecos del grupo "Radiohead", exponente de la música alternativa de los 90.
Ha vuelto el rock, han vuelto las guitarras, y la electrónica también luce por todas partes.



### CHIMES AT MIDNIGHT
*Madrugada* ______ ROCK

Norvegiako pop-rock disko borobila. 14 urtez geldi egon ondoren, bandaren dotorezia instrumentalak eta Sivert Høyem-en ahots soilak atmosfera bereizgarriak lortu dituzte.

Pop-rock noruego de gran factura. La elegancia instrumental característica de la banda y la sobria voz de Sivert Høyem han creado las atmósferas distintivas de Madrugada.



### CROOKED TREE
*Molly Tuttle* ______ BLUEGRASS

Folk eta bluegrass estiloak lantzen dituen abeslari kaliforniarraren hirugarren diskoa. Oraingoan, besteak beste, Billy Strings edo Gillian Welch-en mailako kolaborazioak jaso ditu.

Tercer disco de la cantante californiana que combina el folk y el bluegrass. Para el disco ha tenido colaboraciones de la talla de Billy Strings o Gillian Welch.

## FILMAK



### EN UN MUELLE DE NORMANDÍA
*Emmanuel Carrère* ______ DRAMA

Laneko baldintza eskasen eguneroko aurpegiaren erretratu urratzaile eta gordina. Klase xumeenek egin beharreko ahaleginen gainean hausnartzeko gonbita.

Un retrato desgarrador y certero de la cara cotidiana de la precariedad laboral. Una invitación a reflexionar sobre los trabajos que ocupan las clases más humildes.



### CERCA DE TI
*Uberto Pasolini* ______ DRAMA

Benetan gertatutako kasu batean oinarritutako drama hunkigarria. Hiltzera doan gizon batek bere semearentzako familia berri bat aurkitzeko ahalegina egingo du.

Un limpiador de ventanas dedica su vida a criar a su hijo de cuatro años, a quien su madre abandonó después de nacer. Sólo le quedan unos meses de vida y decide invertir los días que le quedan en buscar una familia adoptiva.



### HIERVE
*Philip Barantini* ______ DRAMA

Interpretazio bikainak dituen film bizia eta urduria, gastro-thriller bezala izendatua. Odola irekiten jarriko dizu eta protagonistak adina izerdi botako duzu!

Agotadora, tensa y arriesgada película. Gastro-thriller con actuaciones sublimes que logrará que te hierva la sangre y sudes tanto o más que el protagonista.



### EL AMOR EN SU LUGAR
*Rodrigo Cortés* ______ DRAMA

Antzezkizun betean, aktore judu batzuk Varsoviako ghettotik ihes egiten nola saiatzen diren kontatzen digun filma.

Película que cuenta cómo unos actores judíos intentan escapar del gueto de Varsovia durante y después de la función que están representando.



### DRIVE MY CAR
*Ryusuke Hamaguchi* ______ DRAMA

Maite dugun gizaki baten galera eta Chejov-en *Tío Vania* antzezlanaren egokitzapena gurutzatzen dira Tokioko errepideetan gorpuzten den drama existentzial eta hunkigarri honetan.

Se entrecruzan la adaptación teatral *Tío Vania* de Chéjov y la angustia ante la pérdida de un ser querido. Drama existencial, surcado por las infinitas carreteras de Tokio, que atrapa tanto por su delicadeza como por su sensibilidad.

eLiburutegian ere eskuragarri
Disponible también en eLiburutegia